



LESVOSeko KANPAMENDUETARAKO JANARI-BILKETA

Europa ekialdean, milaka lagun hartzen dituzten kanpamenduetan ez aurrera ez atzera gelditutako errefuxiatuek bizimodu latza dute, munduaren begietatik urruti.

Eguneroko bizitza zail horretan, Zaporeak elkarteak egunean jatordu bat eskaintzen die Euskal Herritik joandako boluntarioen lanaren bitartez eta hemendik bidalitako janaria prestatuta.

ZAPOREAK elkarteak aldiro antolatzen du janari bilketa. Debarreneko zortzi herrietan **janari bilketa martxoaren 28ra arte** egingo da, herri bakoitzean janari mota bat bilduta. **Mutrikun arrain-kontserbak bilduko dira.**

Lana erraztearren, ikasle mutrikuarrek etxetik eramandako latak herriko ikastetxeetan ipiniko diren kutxetan utzi ahal izango dituzte, gero handik Eibarrera bideratzeko.

Herrian bilketa bideratzeko, pentsatu da dendetan kutxak ipintzea, establezimenduan erositakoak bertan uzteko.

Honen bidez, zure kolaborazioa eskatu nahi dugu kanpaina honetan ahalik eta arrain-kontserba kilo gehien lortzeko.

Eskerrik asko egingo duzun ahaleginarengatik.

Mutrikun, 2025eko martxoaren 17an